

Galtzaundi

2015
10.000.000



ESKUALDEA: Garai batako Alegia eskaineri 7an www.zazaitantriengi.ari.com

maria dantzari **MEMORIA DANTZAN:** Anjelita Julkabetaren sarreraz

KULTURA: Kapitik alezara elkimeneren balorababe **KIROL SALTSA:** Zugarne Azkorri begira

ELKARRIZKETA: Maria Luza Irastorza auzorari eta



*Alarma gorria
ikuiluan*



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



GOITIK

Internet eta aurreinprimaketa zerbitzuak

korreo kalea, 45 beheka - 20400 Tolosa
 Telf. 943 67 08 19
goitik@goitik.com - www.goitik.com



aldama_tapia
 aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
 20400_TOLOSA Gipuzkoa
 Tel_943 650 375
 Faxes_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

Gama altuko betaurreko
 progresiboak erosiz,
**EGUZKITAKOAK
 OPARI**

Eguzkitako
 betaurreko
 graduatuak
 euro
55
 kristalak barne

Konbinatu
2
 MULTIOPTICAS

www.multiopticasgipuzkoa.com

Esan behar duzu baldin baduzu 150000 eta 1000000 arte. Armezoak: Bonard Sol Ri markako aukeraketa; lertzeak: Bestayi monokokal organikoak, eguzki babesa 1.5 Kat 3. zilindroa +2, estera +2tik -4ra artekoa. Ezin daiteke beste eskaintza edo promozio batzuekin pila.

J. Carlos Guerra 1
 Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
 Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
 Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
 Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
 Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
 Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Eng.
 Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
 Tel. 943 69 84 70
TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Iñigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbeagoza.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Oihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Balamain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaleraren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

• Hemeroteka: Ibiur urtegiaren erabilerari buruzko iritzia

• Unai Igartua: Ametsak

NORMALIZAZIO ATALA

• Harategiei zuzenduriko kanpaina eskualdean

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- *Garai bateko Alegia* ekimena ekainaren 7an.
- www.zazpitantrian-gulon.com, Tolosako gazteen topagune birtuala.

4-5. orrialdeak

6. orrialdea

10-13 orrialdeak

Galtzaundi 302

2009ko maiatzaren 22a

Iritziaren leihoa: Hemeroteka eta Unai Igartua.....4-5

Eskualdeko albisteak:

Garai bateko Alegia ekimenaren nondik norakoak10-11

www.zazpitantrian-gulon.com atari berriari buruzkoak12-13

Memoria dantzan Anoetan:

Ikastolaren sorreraren garaiak oroituz18-19

Kultura:

Txolarrek harrera bikaina jaso du eskualdeko plazan20-21

Kirol saltsa:

Eskualdeko mendi lasterkariak Aizkorriin gora22-23



ERREPORTAIA: ABELTZAINZAREN EGOERA

7-9 orrialdeak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutako argitalpena

ELKARRIZKETA

“Nostalgiaz gogoratzen ditut garai haiek. Jada urte asko dira utzi nuela. Antzoki batetik bestera ibiltzen nintzen. Nik izugarri disfrutatzen nuen, baina nire aitari ez zitzaion gustatzen, gaizki ikusita baitzegoen garai haietan emakume bat estenatokian egotea. Zer nahi duzu artista izan? esaten zidan. Baina ni ikustera joaten zen beti, eta negar egiten zuen gainera.”

• Maria Luisa Irastorza:
Akordeonista

15-17. orrialdea

IBIUR URTEGIAREN ERABILERARI BURUZKO IRITZIA

HEMEROTEKA

Galtzaundi aldizkariak, 298 alean Ibiur urtegiari, ur hornikuntzaz gain eman nahi zaizkion beste erabileren gaineko artikulua kaleratu zuen. Batetik, TAK-en banku mugikorrek arraun eremua jartzeko proposamenaren berri ematen zen. Bestalde, Tolosako Udaleko kirol sailetik jasotako mezua agertzen zen: "Ibiurko ur-bizien proiektua geldituta bai, baina ez dago ahaztuta". Artikulu honen harira, zenbait herritarrek euren iritziak eman dituzte eskualdeko tokiko komunikabideetan:

Irakurri nuen Galtzaundi aldizkarian (298 alea) Ibiurko erabilera alternatibo batzuri buruzko apunte txiki bat; egia da, bertako urak erabiliz aisiarako leku edo konplejo turistiko bat sortzea ez dela berria, presa betetakoan geratuko den ur putzua aprobetxatuz.

Galtzaundiko artikuloa- ren izenburuak dionari buruz " Ibiurko ur biziak: gel-dituta baina ez ahaztua ", zera esango det: Ni ere ez nengoela ahaztuta orain dela denbora puska bat (urte bat baino gehiago) kontu hori nola atera zen Orendaingo alkatearen partetik. Egia esan nik espero nuen bidezko diren arzoziogaitik, ahaztutako kontu bat izango zela baino ez dela horrela dirudi.

Dena dela, uste dut, Baliarrain, Orendain eta Ikaztegiako alkateak, TAKekin (Tolosako Arraun Kluba) proiektuak egin aurretik, Ibiurren parte duten eta bertatik edan behar duten bazkide guztiari galdetu beharko liekela hauek. Zer egin nahi duten eta zehazki zer suposatzen duen pentsatzen ari diren proiektu horrek. Nik garbi daukat; edan behar dudana urak ahal

den manipulazio txikiena izatea nahi dut.

Erantzun errezari aurre hartuz, baita ere esango det arrazoi higieniko edo sanitarioetan gehiegi sartu gabe depuradora konbentzionalak ez dutela dena garbitzen eta bestalde, zikintzen ez dena garbitu beharrik ez dagoela.

Nahiko adierazgarri izan beharko luke nola inguruko urtegiak, kontsumorako urak dituztenak, Añarbe, Endar, Urkulu, Ibai-Eder, Aixiola, Barrendiola, Arriola edo Lareok ez dituzten udako lekuak bertan antolatu; eta badira aipatutako hoietan inguru ederrak...

Beraz, urtegia regatatako edo bertan hankak sartuta turismoa bultzatzeko idearen aurka nagoela garbi adierazi nahi nuke. Alderantziz, aipatutako aktibitatek babestua izan beharko luke leku honek. Artikutza (Añarbe) antzera.

"Nahiko adierazgarri izan beharko luke nola inguruko urtegiak, kontsumorako urak dituztenak, Añarbe, Endar, Urkulu, Ibai-Eder, Aixiola, Barrendiola, Arriola edo Lareok ez dituzten udako lekuak bertan antolatu; eta badira aipatutako hoietan inguru ederrak..."

Duela igande batzuk, Tolosaldeko Hitzan, azaltzen zen idea (Ibiurko proiektua bera baino azkoz zaharra goa dena) presagain puzgarria zelakoa, lantzeko moduko idea iruditzen zait. Eragin gutxiago inguruari, inguratzeko baliabide hobeak eta garrantzituena: edateko urak kutsatzeko arrisurik gabea.

Jexux

Tolosaldeko HItza

Zumardi
SEGUROS
BILBAO

**Aholkularitza
integrala**

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16 943 425 886 943 420 187	Garibai, 8 943 420 259 943 430 947	Rondilla, 11 943 670 615 943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

kutxa

SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua 24 orduetan

NISSAN

943 653 491 943 653 874
943 653 985 943 806 020
Santa Luzia, 1 TOLOSA



AMETSAK

UNAI IGARTUA

Eneko Haritzaren lagunak taldeko kidea

Ze kuriosok dien ametsak, lo gaude-larik, nahi gabe eta kontrolatu gabe imaginazioak hegan egiten duenean. Milioika eta milioika amets, eta gutxi batzuetaz soilik gogoratzeak bere bihozmin eta bere xarma du aldi berean. Gozatu egiten dut, eta sarri, amets batetik esnatzean, berriro ere paradisu berdinerara bueltatu nahi izaten dut, batzuetan baita lortu ere. Beste askotan aldiz, lasaitu earra hartzen da amets bat soilik izan dela konturatzean, amets gaizto delakoa! Edo eta gure ametsak errealitate edo fikzio izan direla ere zalantzan jartzen ditugunean, gatazka ederrak gure buruarekin!

Askotan gustatzen zait izugarritzko mendi elurtua eskalatzen ari naizela amestea (eta hori ez naizela eskalatzaileria), ikaragarritzko hotz eta haizearekin eta puntara igotakoan, bekainak ere

izoztuta ditudala salto egin eta hegan egiten dut.... (Flip-pau!!). Askok gustatzen zaidan beste bat, etxean apale-tako ontzi, plater eta dena delakoak botatzen ditudala da, total, ez dauzkat gero jaso beharrik, je je!!

Halere, lotan amestea bezain, edo are eta garrantzitsuagoa iruditzen zait esna amestea. Behar beharrezkoa edonorentzat. Amets edo helburuek mantentzen baikaituzte bizirik. Jo punturik izan ezean ez dago bizitzeko ilusiorik, horregatik, gero eta amets gehiago, hobe, guztiak ez dira beteko, baina errealitate bihurtzeko, lehenik amestu egin behar da. Gure amets hauetako asko ez dira inoiz beteko, asko ezinezkoak dira, eta beste asko, lortzera iristen garenean ez dira guk amestu bezalakoak, baina berdin dio, ziur buruko labirintoan beste mila daudela bueltaka.

Helburu hauek epe mo-

tzekoak izan daitezke edo etorkizunekoak, xumeak edo ezinezkoak, egun batekoak, edo eta bizitza guztian jarraitzen digutenak.... Baina eduki egin behar dira, bost urte izan edo eta laurogei, dirua izan edo ez izan, guztiontzako daude ametsak Saharako haurtxo batek bizikleta bat desiratuko du eta seguruenik, Suitzako gazte bati loteria tokatzeak baino ilusio gehiago egingo dio.

Egia esan, zailena agian hori da, benetan zer nahi dugun jakitea. Zeren ziur al zaudete zer nahi duzuen?? 18 urte nituelarik osaba batek zera esaten zidan, "Unai, zuk izan nahi duzuna argi badaukazu, izango zara", eta nik nire buruari, "Eta zer izan nahi dut ba??" Ni behintzat horretarako desastre bat naiz, adibidez, urteronago konbentzitura zozketa bateko furgoneta tokatuko zaidala, eta furgoneta bat badut jada. Halere pozik as-

"Amets edo helburuek mantentzen baikaituzte bizirik. Jo punturik izan ezean ez dago bizitzeko ilusiorik".

ko bizi naiz nire amets txikiak (edo ez hain txikiak) errealitate bihurtzen, edo bihurtuko direla amesten. Ametsen puntu txarretako bat, puntu txar bezala har badaiteke, ilusio gehiegi egin, eta gero betetzen ez direnean gertatzen da, bestela galdetu Athletikeko jarraitzaileei!!

Emozionatzea ona da, azken finean ditugun amets, helburu edo proiektu hauek baldintzatzen dute gure etorkizuna, berauek betetzearen hartzen baititugu bide batzuk edo besteak.

Beraz, amestu, lagunak, eraman zuen irudimenak munduaren azkeneraino, eta hauek errealitate bihurtzen saiatu, gero eta txori gehiago buruan, orduan eta zorionsuago!!



Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA



**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizitza-asegurak
Kotxe-asegurak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurak
Denda-asegurak
Erretiroak
Inbentario fondoak

IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak
Zilar gaitetan berezitasuna
Diseinuko zilarra
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia
TOLOSA • Tel.: 943 674 615

ibarra

Argi-Lanak

Argi lanak, antenak
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181
Mobila: 639 72 42 60

Tolosa Bit

Informatika Zerbitzuak

Ordenagailuak eta konponketak
Enpresa eta partikularrentzako
Mantenimenduak

Oria kalea, 14-behea -TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es

Harategiei zuzenduriko kanpaina eskualdean

HARATEGIAK ERE EUSKARAREN NORMALIZAZIORA BIDEAN

Erredakzio Batzardea

Eskualdeko eguneroko bizitzan euskara ohiko hizkuntza da eta hizkuntza normalizatu bihur dadin ahalegin handia egiten ari dira eskualdeko hainbat eragile: udalak, elkarteak, enpresak, komertzioak... Honen adierazgarri, Bai Euskarari Ziurtagiria duten 71 eragile daude eskualdean. Lan horretan, zalantzarik gabe, alor sozio-ekonomikoa esparru estrategikoa da, eta hor kokatzen dira, besteak beste, harategiak.


Bai Euskarari Ziurtagiriak entitatean euskarak zer nola-

Kontseiluak, Bai Euskarari Ziurtagiriak, UEMak eta Galtzaundik, beste eskualde batzuetako euskalgintzarekin elkarlanean eta udalen laguntzarekin, harategietako hornitzaileei zuzendutako kanpaina martxan jarriko dute.

ko presentzia duen aztertze-ko aukera ematen du, eta harategietan hornitzaileekiko harremana nagusiki gatzeleraz dela ohartarazi du. Abiapuntu honek bide ematea da helburu, Tolosaldeko harategiak elkartzeko eta hornitzaileei euskarazko elementuak erabil ditzaten exijitzeko. Hala bada, erakundeen eguneroko harremanetan euskarak behar duen tokia izatea nahi da.

Kanpaina hau aurrera eramateko, eskualdeko harategiek gutun bana jasoko dute. Bertan beharrezkoa den informazio guztia eskuratu-ko dute, baita kanpainen parte hartzeko gonbidapena ere.

Tolosaldeko harategietaz gain, Leitzaldea, Ultzamaldea, Larraunaldea, Bortzi-riak eta Baztango eskualdeak ere kanpainen parte hartuko dute. ■



Ibilaldira

joateko autobusak

Galtzaundik autobusak antolatu ditu, maiatzaren 31ean, Galdakaon ospatuko den Ibilaldira joateko. Horretarako, Galtzaundiren egoitzan izena eman behar da.

Autobusaren balioa 12 eurotako da (bazkideak 9 euro). Autobusa goizeko 9:00etan irtengo da Tolosako Tren geltokitik eta itzulera arratsaldeko 19:00etan izango da. Anima zaitezte!


Ibilaldiak zure laguntza behar du

Bidali izen abizenak, e-maila eta telefono zenbakia ibilaldikideak@gmail.com helbidera, eta zehaztu, nahi baduzu, zer lan egin nahi duzun. Izena, banaka, binaka edo taldeka eman. Denon artean Ibilaldi bikaina antolatuko dugu!

ALDATZ Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiluak
Beirate artistikoak
Dubxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



BENTA ALDEA

JATETXEA

Tel.: 943 654 079
ANOETA-TOLOSA BIDEAN



ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

Turre, 4 (Mustad) 943 672 300
Amaroz, 21. 943 675 513
20400 TOLOSA



Abeltzaintzaren egoera, guztiontzat kalte

GIZARTEAK LEHENENGO SEKTOREA EZ DUELA EZAGUTZEN DIOTE EHNEKO BASERRITARREK

Leire Zubeldia

Hasteko, egiguzue zuen sektoreen argazki bat. Zein da egoera?

Kepa Urreaga: Esne sektorean egoera oso oso larria da. Azken bi hilabeteetan esne litroa 4 zentimo jaitsi da, eta aurreikusten dugu, hurrengo bi edo hiru hilabeteetan egoera okertu egingo dela.

Garikoitz Nazabal: Haragiaren sektorean 50 urte daramatzagu krisian. Ez dugu bururik altxatzen, duela 30 urteko prezioan kobratzen dugu haragia, eta produktio kostuak igo egin dira, bizitza bera igo den moduan. Iazkoa izan zen punturik altuena: Zerealaren prezioa izugarri igo

Esne kaxa bat edo okela erosketen saskian sartzen dugunean erosketa bat baino zerbait gehiago egiten ari gara. Kontsumitzaileak ziklo bat ixten du: Jateko erosi duen haragi hori txekor batena da; txekorra abeltzainak hazi du; eta abeltzainak ingurunea txukun mantentzen du. Gipuzkoako baserritarrek, lurraldearen %80a kudeatzen dute. Gizarteak, bertako produktuek duten balio erantsi hori balortuko balu, hemengo abeltzainak ez leudeke orain dauden egoeran. Gaurko abeltzaintzaren argazki bat ateratzeko, EHNE sindikatuko bi kiderekin egon da Galtzaundi San Isidro egunaren bezperan: Kepa Urreagak esne sektorean egiten du lan, Garikoitz Nazabal aldiz, haragi ekoizlea da.

zen, eta abereak hazteko hori da gehien erabiltzen den lehengai. Egoerak bultzatuta, gero eta gehiago dira negozioa uzten ari direnak, eta beste batzuk jarrai-

tu egiten dugu, baina hobby hutsagatik, abel-buru gutxi batzuk mantenduz.

Saldu ezina da gure sektorea izurratzen duena. Guk produ-

zitzen duguna huskeria da hemen kontsumitzen den haragi kopuruarekin alderatuta. Eskuetatik kendu beharko ligukete.

Une honetan, baserria errentagarria al da?

K.U: Azkeneko lau hilabeteetako batezbestekoari begiratuta argi esan daiteke ez dela errentagarria. Orain arte, haragiaren sektorearekin alderatuz, esnarena errentagarria zen. Egoera erabat aldatu da ordea. Aurten go urtean sartu garenetik, errentagarritasuna galdu egin du sektoreak. Esnearen prezioa behar-raka doa gainera. Zain gaude, bi hilabete hauetan zer gertatzen

(hurrengo orrian jarraitzen du)

den ikusteko, baina alarmak piztuta dauzkagu. Ez hemen bakarrik, Europan ere egoera bera bizi dute. Ez dakigu zer gertatuko den.

Zenbatean ordaintzen zaizu esne litroa? Eta zenbat balio du kopuru bera ekoizteak?

K.U.: Hemengo baserritar gehienok Kaikura saltzen dugu esnea. Hala ere, prezioan ezberdintasunak egon daitezke, kantitatea eta kalitatearen arabera. Batezbesteko bat eginez, litroa 28 edo 29 zentimo ordaintzen zaio baserritarri.

Ekoizpenak zenbat balio duen erantzuteko ere ezberdintasunak daude baserri batetik bestera. Baserri batean dauden belar-sailen arabera izaten da hori. Baina argi dagoena da, autonomo-

200 buruko ukuiluak. Hauek inbertsio handietan sartuta egoten dira. Milioi askori buelta eman behar die eta une honetan ez dago horretarako aukerarik. Alde horretatik, ukuilu handiak txikiak baino egoera zailagoan daude. Beste aldetik ordea, ustiakuntza txikiei handiei baino gutxiago ordaintzen zaie esnea. Nahiz eta dirutan zuloa egiteko beldurrik ez eduki, ez da errentagarria. Azkenean, bai handia eta bai txikia, denak egoera berean gaude.

G.N.: Admistrazioak paper garrantzitsua jokatzen du hemen: Laguntza planak ateratzen direnean, edo eta irizpideak markatzeko garaian, beti lehenesten da inguru hauetarako beharko lukeena baino handiagoa den ustia-

“Batezbeste, esne litroa 28 zentimo ordaintzen zaio baserritarri. Kopuru hau ekoiztea ordea 30 zentimo kostatzen da”.
K. URREAGA

ten dut lan, eta EHNEen ere gehienak azpi-sektore honetan ari gara, baita Euskal Herri mailan ere. Untxia edo txerria produzitzen dutenak gutxi dira behi haragiaren ekoizleekin alderatuz. Baina badakigu, txerriarekin lanean ari direnak oso egoera txarrean daudela, eta berdin untxiarekin dabilzanak ere, nahiz eta aurreko gabonetan untxia jateko kanpaina berezia egin. Gale-

kegu kostu horiek; txekorra hormona bidez hazita esate baterako. Nik hori ez dut nahi ordea, zeren nik jan behar dudako produktua da.

Bestalde, astakeria da burukrazia aldetik agro-industria bati eta baserri txiki bati neurri berean exijitzea. Osasun saila Europako legedian oinarritzen da guri eskakizunak egiterako garaian. Baina legedi horren interpretazio ezberdinak egiten dira Espainian, Frantzia eta Europako gainontzeko herrialdeetan. Euskal Herri mailan exijentzia ezberdinak ditugu hegoaldeko eta iparraldeko baserritarrek. Azkenean ondorio honetara iristen gara: Hemengo ekoizleek betetzen ditugun baldintzak ez dituela kanpotik datorren produktua garantizatzen. Badirudi hona sartzeko diren produktu guztiak berdinak direla, baina hori ez da horrela. Kontsumitzailea engainatu egiten da.

K.U.: Hemengo produktuei exijitzen zaien maila berean exijitu beharko litzaieke kanpotik hona ekartzen dituztenei. Baina inondik inora ez zaigu iruditzen hori egiten denik. Normalean, kanpoko ekoizpena errazagoa izaten da, eta horregatik merkeago sartzeko da gure herrian, beraz, ezinezkoa da kanpokoak eta hemengoak prezio bera izatea.

Kontsumitzaileek zer falta dute, informazioa edo hezkuntza?

K.U.: Nik uste dut bietatik falta dutela. Jakin beharra daukagu, zer erosten dugun, nongoa den eta nola dagoen eginda.

G.N.: Gure sektorearen ardatza beti izan da gizarteari produktua ona eskaintzea. Baina ulertu behar da, bertako produktuaren kontsumoak eusten diola baserriari, eta baserriak eusten diola inguruneari. Azken hau, eskaintzen dugun produktuaren balio erantsia da. Eta hori kontsumitzaileak ulertu egin behar du.

ena den ustiakuntza batentzat ere, esne litro bat produzitzeak gutxienez 30 zentimo balio duela. Beraz, une honetan dirua galtzen ari gara. Askok esaten digute, hori ezinezkoa dela, galtzen ibiliko bagina ez genukeela lanean jarraituko. Hilabete batean edo bitan agian ez gara galtzen aterako, baina urteko batezbestekoa egingo bagenu, une honetan galerak izango genituzke. Adibidez, hilabete jakin batean urte osoko artoa ordaindu behar izaten da. Ordainketa hauetarako aurreratzen joan beharra daukazu. Baina azken hilabete hauetan bezala minusean amaitzen badugu, nola aurreratu?

Hemengo ustiaketa eredu txikia da. Ustiakuntza handietan txikietan baino gogorrago jo al du?

K.U.: Esne sektorean badaude

kuntza. Sektorean ikusten dugu, justu kontrakoa bultzatu beharko litzatekeela. Gero eta txikiagoa izan, orduan eta aukera gehiago dago autogestionatzeko. Ustiakuntza zenbat eta handiago izan, orduan eta menpekotasun gehiago izaten da kanpoko faktoreekiko. Horrek ordaintzea dakar, eta ondorioz produkzio kostuak igo egiten dira. Esne sektorean gertatzen den moduan gertatzen da hori haragiaren sektorean ere. Admistrazioa inguru hauetara egokitutako politika bat egin beharko luke, eta orain arte boterean egon direnek behintzat, justu kontrakoa egin dute.

Haragi sektorean, haragi ekoizpen ezberdinak daude. Nola dago egoera azpi-sektore hauetan?

G.N.: Denak daude egoera txarrean. Nik behi haragiarekin egi-

rak egiteko oso bide erraza da untxiena. Irabazi tarte oso txikiarekin jokatzen dute. Txerriaren azpi-sektorean berriz, burua altxatzen ari zirela ematen zuen, baina Mexikotik etorritako gripe honekin berriro hondoa jo dute. Puntu honetara iritsita, komunikabideek jokatzen duten paperaz hausnartu beharra dago: Alarma egoera bat zabalitzen dute, eta jendea izutu egiten da. Honek zer ekartzen du? Salmentaren prezioak behera gitea.

EHNEen subiranotasun alimentarioa terminoa erabiltzen duzue maiz. Zer esan nahi du honek?

G.N.: Jaten duguna gara. Azken boladan modan jarri da slogan hori, baina gu aspalditik ari gara hori esaten. Produkzio kostua handia dela kezkatzen ibiltzen gara. Baina oso erraz jaitsi ditzaz-



ALEGIA >>> EKAINAREN 7AN GARAI BATEKO ALEGIA EKIMENA OSPATUKO DUTE ALEGIARREK, EGUN BATEZ B.

Izan zirelako gara, garelako izango

Tresna zaharren azoka bat egiteko asmoak piztu zuen lehen sugarra. Guztiok dakigu, ordea, suari egurra botaz gero zer gertatzen den, eta hasierako sugar txiki hura handituz joan da, bazter guztiak berotu arte. Bi aste barru Alegiak urte mordoxka bat atzera egingo du, baina denboraren makina miragarririk gabe, herritarren ilusio, lan eta gogoarekin.

Amaia Goikoetxea O.

“Egun osoko festa moduan planteatu dugu Garai bateko Alegia ekimena”, adierazi digu Maider Jauregik, Alegiako Udaleko zinegotziak eta Kultur Batzordeko kideak. “Urteak atzera egin eta garai bateko bizi-modua ekarriko dugu herrira, batetik, lehen bizi izan zutenek gogoratzeke, eta bestetik, gazteagoak direnek orduko Alegiaren ideia bat izan dezaten”. Kultur Batzordean euren zalan-tzak izan zituzten, horrelako herri txiki batean gisa honetako ekimen bat aurrera ateratzeko modukoa izango ote zen edo ez. Ate ezberdinak jo zituzten, herriko taldeekin hitz egin zuten; jendeari ideia polita iruditu zitzaion, eta aurrera egiteko prest agertu ziren.

Urte hasieran hasi zen Kultur Batzordea Garai bateko Alegia ekimenari egurra botatzen, sugarrak gero eta argi eta bero gehiago eman zezan. Eta hartu du gorputza. “Bando batekin emango diogu hasiera ekainaren 7ari; Zazpi Astoren Gainean bertso eskola da bandoaz arduratuko dena, baina ez dakigu zehatz mehatz zer



Karmengo Amaren jaietako irudi bat.

egingo duten. Herriko taldeen eta jendearen partehartzea bilatu dugu baina bakoitzak parte hartzen duen horretan nahi duena egiteko aukera eman diogu, irudimena lantzeko eta talde bakoitzak bere ekarpena egiteko”. Bandoaren ondoren, kalejira batek alaituko ditu herriko kaleak. Herriko musikariak, instrumentu ezberdinak jotzen dituztenak, eta Loatzo musika eskolako kideak elkartu dira kantu batzuk adostu eta kalejira hori antolatzeke.

Hamaiketarik ordubatera garai bateko lanen eta eginkizunen erakusketa zabalduko da. “Gune ezberdinak markatu ditugu: plaza, bulebarra, Txintxarri plaza eta zubitik Kalebeherara doan paseoa, ibai ondoan, ibaian bertan ere emakumeak arropa garbitzen

arrituko direla aurreikusten baita”, azaldu digu Maiderrek. “Bulebarrean artzantzarekin lotutako kontuak egongo dira; artzaina etorriko da eta ardiei ilea moztuko die, eta emakume batzuk artilezko ohe zaharra astindu eta josten arituko dira. Plaza ingurua ume-jolasen gunea izango da, eta sukaldeko lanak ere ikusi ahal izango dira. Paseoan laboreak joango lirakeke. Horrez gain, pertsonaia batzuk ere ibiliko dira herrian zehar egun guztian: apaiza, idazkaria, argazkilaria, mikelteak...”

Eguerdian, lanak eta eginkizunak utzi, goizean hasitako kalejira horrekin elkartu, eta kantuan kalean behera Kalebeherako ermitaraino joango dira herritarrek. “Han ezkonberriak hartuko ditugu, bi bikote, bertan ezkondu direnak, eta

haien arreo eta gainerako gauza guztiakin plazaraino etorriko gara euren ezkontza ospatzeko”. Plazan herri bazkaria ospatuko da: paella, edariak eta postrea. Txartelak maiatzaren 31ra arte 10 eurotan salgai daude tabernetan eta kultur etxean.

Ezkontzaren ospakizunekin jarraitzeko erromeria izango da plazan. “Dena den, guztia aurrez prestatua izan gabe, polita litzateke bazkalostean jendea kantuan hastea, bertsoak botatz, kalejiran ibili diren musikarien laguntzarekin... momentuan sortzen dena abestuz”, aipatu du Maiderrek.

OTSAGABIKO EREDUA

Tresna zaharren inguruko azokarekin bueltaka hasi zinezan, hasiera batean erdi aroko azoka bat etorri zitzaion

ADA ERE, ASPALDIKO GARAIETAKO BIZIMODUA BERRESKURATZEKO

o dira



Herritarrak plazan.

burura Kultura Batzordeko kideei, baina formula hori asko ikusia dagoela eta asko errepikatzen dela iruditu zitzairen. “Orduan, gogoratu ginen, Otsagabian Oripean jaialdia egiten dela urtean behin. Otsagabia herri bezala nahiko toki berezia da eta han antzinako usadioak dezente mantendutuzte. Esan liteke hemen ohitura horiek urteen poderioz gehiago galdu direla eta herria gehiago aldatu dela. Baina eredu bezala hura hartu dugu, gero gure erara egokitu dugu, noski, baina hangoan oinarri-

tu gara”, kontatu digu Maiderrek.

Ehundik gora izango dira ekainaren 7ko festan parte hartuko dutenak. Gehienak alegiarrak dira, baina inguruko herrietatik ere etorriko da bat baino gehiago. Esate baterako, kurioa bada ere, txintxarrigilea Amezketatik etorriko da, eta Bedaioko dantzariak ere Alegian izango dira egun horretan dantza berezi bat dantzatzen. Alegiarrei dagokienez, Txintxarri abesbatza, Dantza Taldea, Guraso Elkarte, Loatzo musika esko-

EGITARAUA

10:30 Bandoa
11:00 Kalejira herrian barrena
11:00-13:00 Lanak eta eginkizunak
13:00 Ezkonberriei ongietorria
14:00 Herri bazkaria
... Erromeria eta festa

KALEAN GORA, KALEAN BEHERA

Apaiza, idazkaria, argazkilaria, mikelleteak, makilariak, txorroskileroa, margolaria, suhiltzailea, esne banatzailea, dantzariak, garai bateko ume jolasak, moto eta automobil zaharrak...

TXOKOZ TXOKO

Bulebarra. Toka, artzaia ardiei ilea mozten, sega pikatzea eta meta egitea, ohe zaharra astintzea eta jostea.

Txintxarri plaza. Zurgina, kandelagileak, txintxarrigilea.

Plaza. Taberna, denda, sukaldeko lanak: mamia egiten, artoa eta barruna aletzen... eta talogileak.

Paseoa. Laboreak, bizikleta konpontzailea, jaboia egiten eta arropa garbitzen errekan.

la, Zazpi Astoren Gaietan bertso eskola, Txintxarrisferako lagunak, Gaztetxea, Argazkizaleen Taldea eta beste hainbat eta hainbat herritar izango dira protagonista garai bateko Alegian.

Eta ekintza konkreturen batean parte hartuko ez duten guztiei, egun horretan kalera ateratzeko deia luzatu die Maiderrek, kalean ere jendea beharko baita. “Orain 70-100 urteko bizimoduan ere jendea kalean ibiltzen zen eta hori ere irudikatu nahi dugu. Eta egun horretan garai hartan bezala jantzita ateratzearen garrantzia azpimarratu nahi nuke: artzain-andre jantzia, gona beltza eta alkandora, maonezko jantziak... Jendeak hori kontutan hartzen badu, irudi politago bat lortuko dugu”.

TXINTXARRIEN HERRIA

Gauza jakina da inguru hauetan alegiarrak txintxa-

rriak direla. Eta ezizen horrek badu bere azalpena. Lehena-go aipatu dugu ekainaren 7an txintxarrigile bat izango dela Alegian, eta kurioa dela berau amezketarra izatea, ez alegiarra, txintxarrigile ugari izan baitu Alegiak iraganen.

Dirudienez, garai batean sategi asko zeuden herrian. Bular-babesak, alabardak, lantzak, alfanjeak eta ezpatentzako orriak egiten zituzten, baita aizkorak ere. Esan bezala, ordea, txintxarrigileak izan ziren herriari ezizena eman ziotenak. Horietako azkena Norberto Echebarrena “Txanbor” izan omen zen, 1917. urtera arte lanean jardun zuena. Txintxarrigileen arrastoa hainbat izenetan ikus dezakegu gaur egun: Txintxarri plaza (erdian txintxarri baten harrizko eskultura duena), Txintxarri abesbatza, Txintxarri Elkarte... eta ahaztu gabe, Alegiko txintxarrik. ■

TOLOSA >>> WWW.ZAZPITANTRIANGULON.COM TOLOSAKO GAZTEEN ATARI BERRIA MARTXAN DA DAGOENEKO

Tolosako gazteek zazpitan trian

Zazpitantriangulon.com Tolosako gazteen topagune birtuala izango da. Bertan, elkarrekin hitz egin, iritziak trukatu, argazki eta bideoak ikusi eta informazio interesgarria jasoko dute. Web gunea Tolosako Gazteria Sailaren ekimena izan da herriko gazteekin harremanak sendotzeko.

Erredakzioa

www.zazpitantriangulon.com klik egin eta ikusten den lehenengo gauza diseinu gazte eta erakargarria duen ataria da. Itxura ona ez ezik, edukiz ere oparoa dela konturatuko da erabiltzailea, pantailaren bi aldeetara dauden aukerak begiratzeko gero. Ataria zabalik dago jada. Orain, gazteei dagokie web gunean sartu eta parte hartzea.

Ekimena Tolosako Udalako Gazteria Sailarena izan da. "Gazteekin harremanak izateko teknologia berrietara jo behar genuela ikusten genuen", adierazi dute gazteria teknikariek. Interneteko atari

bat sortzea ideia egokia iruditu zitzaion, "baina ez genuen informazio hutsa emango zuen web gunea sortu nahi. Atari bizi eta dinamiko bat sortzea izan da gure asmoa", jarraitu dute. Era honetan, gazteria sailaren eta gazteen arteko komunikazioa bi norabidetakoa izango da. "Orain arte departamentutik proposamenak luzatu dizkiegu gazteei, baina erantzun gehiago jasotzeko asmotan horrenbeste erabiltzen dituzten teknologietara egokitzeko beharra sentitu dugu".

GAZTEEK EGINA GAZTEENTZAT

Ataria Goitik diseinu bulegoak egin du, gazteria teknikariek eskariak jarraituz. Baina gazteen gustukoa izan dadin gazteei beraiei eskatu diote iritzia. "Tolosako ikastetxeetako zenbait ikaslerekin jarri gara harremanetan. Webgunea erakutsi diegu, eta euren ekarpenak egin dituzte". Ekarpene horiek noski, kontutan hartu ditu gazteria sailak, eta web gunean txertatu dituzte.

Web gunearen sorkuntzan parte hartu duten gazte hauei azken emaitzaren gainean galdetu die Gal-

tzaundik. Denek loreak izan dituzte atari berriarentzat. "Iruditzen zait oso ondo dagoela Tolosa edo inguruetako gazteak bertako gauzetaz informatuta egoteko. Agian oraindik gauza edo aldaketa batzuen beharrena dago, baina hori denborarekin eta jendeak egindako eskaerekin, uste dut, oso ondo jarri daitekeela, eta erabilgarria izan daitekeela", dio gazte batek. "Informazio asko ematen duen web gunea da. Sartzen zaren bakoitzean zerbait berria izango duzu, beraz ez dago aspertzeko modurik. Gainera, sariak irabaz ditzakezu. Oso ondo iruditzen zait, Tolosako gazteek txoko bat izatea. Erabiltzeko erraza da, eta erabiltzailea sortzea ere bai. Horregatik, hamarra emango nioke", azaldu du besteak. Hirugarren baten iritziz, "atari berria egokia da ekintzak, lehiaketak, argazkiak eta abar biltzeko. Horrela, bilaketa erraztu egiten baita".

AUKERA UGARI

"Nik, batez ere, ekintzen egitaraua begiratu eta hauek noiz eta non diren jakiteko erabiliko dut. Gainera, gustuko lehiaketarik bada, hauetan ere parte hartuko dut, eta argazkiei ere begiradaxo bat botako diet". "Nik, lagun berriak ezagutzeko, harrema-

nak sendotzeko, edo azken berriak jakiteko erabiliko dut". "Adibidez, asteburuan Tolosan zer dagoen jakin nahi badut, web gunean sartu eta informatu egingo naiz". Erabilerak hauk eta gehiago ere izan ditzake zazpitantriangulon.com atariak.

Albisteak atalean, gazteenetzako interesgarriak diren iritziak jaso dituzte. Agendan, kultura, jaiak, hizkuntza, gizartea eta kirolen arloko ekintzen berri ematen da. Gai ezberdinei buruzko iritziak emateko berriz, foroa sortu dute. Eta web gunean erabiltzaileekin hitz egiteko aukera ere bada, txat-aren bitartez. Ataus izeneko atalean, ekintza ezberdinei buruzko informazio osatua zintzilikatuko da. Guzti honetaz gain, erabiltzaileak, bideoak eta argazkiak igo ditzake, eta beste erabiltzaileek eskitakoak ikusteko abagunea ere izango du. Sariak irabazteko lehiaketak ez dira faltako, eta sexuari buruzko galdetara eta zalantzak argitzeko txokoa ere gazteen zerbitzura jarri dute.

Web gunean erabiltzaile bezala erregistratzea oso erraza, eta aldi berean dibertigarria izango da. Erabiltzailea sortzeko formularioan, izena, pasahitza, jaiotza-data, bizilekua, sexua eta helbide elektronikoa zehaztu behar dira. Guzti honetaz gain, erabiltzailearen izaera



ngulon dute hitzordua

zehazteko aukera dago, norberari egokien datorkion babarrun mota aukeratzuz: Babarrun mutila, babarrun neska, babarrun lapurra, 60. hamarkadako babarruna, hippya, rape-roa, euskalduna... aukeratu daiteke. Guzti hau egindakoa, zure helbide elektronikoan jasoko duzun mezuari erantzun bezain laster zabalduko da zure kontua.

Zazpitantriangulon.com web gunea martxan dago jada. Aurkezpen publikoa ordea hilaren 25etik 29ra arteko astean egingo da. Hori bai, era berezi batean. GKO galeriak arduratuko dira aurkezpenaz. "Zazpitantriangulon atariaren logoa trianguloaren formakoa da. Guk logo hori Triangulo plazan bertan irudikatuko dugu koloretazko zinta batez. Ondoren, Topaguneko gazteei eskatuko diegu zinta horren gainean jarriz trianguloa estaltzeko, eta puntu jakin batetik hartuko dugu irudi hori", azaldu digu Ibai Luque galeriako kideak. Astelehenean, hilaren 25ean egingo dute performance hori, eta aste osoan zehar egongo da koloretako zinta Trianguloan. Askok zer den hori galdetuko dute. Erantzuna, www.zazpitantriangulon.com atarian aurkituko duzue. ■



Galtzaundiko kultur ekitaldiak

IDOIA SANCHEZ ipuin kontalaria

Maiatzak 26
ALEGIko liburutegian
17:15etan.

Maiatzak 26
ORENDAINgo liburutegian
18:30etan.

Maiatzak 28
BELAUNTZAko kultur etxean
18:30etan.



IRAKURRI GOZATU ETA OPARITU

Uztailaren 24ra bitartean Tolosako liburutegian liburu bat irakurri, fitxa bat bete eta Elkar liburudendan euskarazko liburu bat erosteko %25eko eta %50eko deskontuak lortzeko aukera ezinhobea.



Ludotekako begiraleen izen-ematea

Uztaileko ludotekarako begiraleen izen ematea ireki da ekainaren 15era bitarte. Curriculum vitae- a bidali kultura@galtzaundi.com helbidera.

Txilipurdika ludoteka 2009

3 urtetik 10 urtera bitarteko haurren ludotekako izen ematea ireki da. Zatoz gurekin udan euskaraz jolastera!

Antolatzailea: Galtzaundi Euskara Taldea

Noiz: Uztailaren 1etik 30era bitartean.

Ordutegia: 9:00etatik 13:00etara astelehenetik ostiralera.

Izen-ematea: Ekainaren 1etik 15era bitartean. Goizeko 9:00etatik 13:00etara Galtzaundiko egoitzan. Nafarroa etorbidea 6 behea, Tolosa.

Matrikula: 80 euro (bi anai-arreba 130 euro eta hiru 160 euro). Igerilekura joan nahi duenak 15 euro gehiago ordaindu beharko ditu.

Informazio gehiago: Galtzaundi Euskara Taldean. 943 655004 telefonoan.



galtzaundi
euskara taldea



Maria Luisa Irastorza Donostian bizi da egun, baina maiz etortzen da bere jaioterrira, Tolosara.

Maria Luisa Irastorza, akordeoiaren doinu nostalgikoa

NOSTALGIA DISKOAN BILDU DITU GAZTETAN AKORDEOIAREKIN JOTZEN ZITUEN PIEZAK

Leire Zubeldia

Akordeoiak liluratu zuen Maria Luisa lehenik, eta gero, Maria Luisak lituratu zuen jendea akordeoiarekin. Milaka pieza jo zituen Euskal Herriko antzoki, zezen plaza eta frontoietan. Jendetza biltzen zen Maria Luisak parte hartzen zuen jaialdietan. Ordura arte, akordeoiarekin inoiz jo ez ziren piezak entzun zituzten; piano-ko piezarik ederrenak akordeoiarekin jo ahal izateko moldatzen baitzituen tolosarrak. Eta emakume bat ikusten zuten oholtza gainean; 40 eta 50.

Inoiz ez da berandu. Ezta disko bat ateratzeko ere. Maria Luisa Irastorza (Tolosa, 1935) 13 urte inguru zituela hasi zen akordeoia jotzen, eta 74 urterekin atera du bere lehendabiziko diskoa. Lanari jarri dion izenburuak ez du azalpen beharrik: *Nostalgia*

hamarkadan hori ez zen oso ohikoa. Guzti honengatik, akordeoi jotzaile ospetsua izan zen Irastorza. Baina gehien bat, Gipuzkoako eta Espainiako txapel-dun izateak eman zion ospea. Orain, nostalgiaz gogoratzen ditu garai haiek.

Aitak, *artista izan nahi al duzu ba?* galdetzen zion oholtzatik jaisten zenean. Berak ez zion hitzez erantzuten. Piano ikasketak egin

zituen zortzi urtez. Antzokieta-tik erretiratu eta gero ere beti eraman du akordeoia aldean. Jubilatuz zenean pintatzen hasi zen eta bere lanak erakusgai jarri ditu behin baino gehiagotan. Bai. Maria Luisa Irastorza artista da. Baina gauza guztien gainetik, akordeonista da. Eta bere ondorengoek akordeonista bezala gogoratu dezaten grabatu du *Nostalgia* diskoa.

Zerk bultzatu zaitu diskoa grabatzera?

Ikusten nuen urteak aurrera doazela. Horrek bultzatu nau. Duela bi urte, akordeoi berri bat erosteko kapritxoa sartu zitzaidan. Italiako ekoizle bati eskatu nion akordeoia. Aurretik nuena ere han egindakoa zen. Sei edo zortzi hilabetera iritsi zen akordeoia etxera. Nire gusturako pisutsuegia zen. Lehengoa baino astunagoa zen. Kosta egin zitzaidan ohitzea. Orduan esan nuen: *Hau ez badut erabiltzen, utzi egingo dut eta zaharrarekin hasiko niaz berriro*. Eta horrela, egunero-egunero ordu t' erdi sartzen hasi nintzen. Denbora

(hurrengo orrian jarraitzen du)



Maria Luisak bere ondorengoei oroigarri bat uzteko asmoz grabatu du diskoa.

puska bat egin nuenean pentsatu nuen: *hau ez duzu utzi behar, segi egin behar duzu!* Paperak ateratzen hasi nintzen, partitura zaharrak hartzen. Eta era honetan bururatu zitzaidan pieza haiek grabatzea, nire seme-alabek oroigarri bat izan zezaten.

Denboraren presioa ere sentitu duzu...

Bai. Egunero, ordu betez akordeoia jotzen hasi nintzen, eskuko hatz bat mindu egin zitzaidan. Medikuaengana joan nintzen, eta denbora batean jo gabe egoteko esan zidan. Udara osoa pasa nuen geldirik, eta arrazoi zuen medikuak, handitua jaitsi zitzaidan. Orduan hasi nintzen diskoa prestatzen, *Maria Luisa, orain edo inoiz ez!* pentsatuta.

Nostalgia izena jarri diozu diskoari. Nostalgiaz gogoratzen al dituzu ba akordeoiarekin ibiltzen zinen urteak?

Bai. Nostalgiaz gogoratzen ditut garai haiek. Jada urte asko dira utzi nuela. Antzoki batetik bestera ibiltzen nintzen. Nik izugarri disfrutatzen nuen, baina nire aitari ez zitzaion gustatzen, gaizki ikusita baitzegoen garai haietan emakume bat estenatokian egotea. *Zer nahi duzu*

artista izan? esaten zidan. Baina ni ikustera joaten zen beti, eta negar egiten zuen gainera.

Estenatoki asko zapaldu dituzu...

Gipuzkoako antzoki guztietan egon nintzela esango nuke. Orduan, jaialdiak egiten ziren: batek kantatu egiten zuen, beste batek dantzatu, eta horrela. *Festivales de folclore vascongado* deitzen zitzairen. *Por educación y descanso* antolatzen zirela jartzen zuen karteletan. 50. hamarkadaz ari gara hizketan. Ni Agerre anaiekin ibiltzen nintzen. Eurak ibiltzen ziren mota honetako jaialdiak herrietako zezen plazetan antolatzen. Harrijasotzaileak ziren. Eurekin batera bertsolariak aritzen ziren: Baserri, Uztapide eta Xepai. Gero, aizkolariak ekartzen zituzten: Korta eta Atxaga. Eta guzti hauekin batera, ni ibiltzen nintzen, akordeoia jotzen. Zezen plazak leporaino betetzen ziren. Frontoietan ere egiten genituen. Gipuzkoan asko, baina Bizkaian ere ibili ginen. Nafarroara gutxia go jaten ginen.

Espainiako txirrindulari itzulitik ere deitu omen zizuten behin...

Bai. Oso ondo ibili nintzen. Etapa amaieran, estenatoki bat jartzen zuten, eta han egoten nintzen ni akordeoia jotzen. Jendetza biltzen zen errepide bazterretan. Dendak eta lantegiak itxi egiten ziren txirrindulariak ikusteko. 1956. urtea izango zen. Bobet anaia ibiltzen ziren punta-puntan. Bidaurreta anaia ere bai. Eta noski, Bahamontes ere nabarmentzen zen. Lasterketak irauten zuen bitartean, furgoneta baten barruan joaten nintzen. Emakumeei ez zitzairen lasterketan joatea uzten eta izkurtatu egiten ninduten. Inor ez zegoen lekuetan, akordeoia jotzen nien furgonetatik txirrindulariei. Hantxe joaten ziren denak, bizikleta gainean dantzan! Eta pixa egiteko geratzen zirenean, gidariak bozgorailuetatik esaten zuen: *kontuz, emakumea bistan!*

Los Key taldeko kidea ere izan zinen...

Bai. Donostiako talde ezagun bat zen. Eurekin ibiltzen nintzen, baina solista moduan. Talde hau Ameriketara joan zen. Denbora asko egon ziren han. Disko asko atera zituzten. Agur esatea erabaki zutenean berriro hona itzuli ziren. Nere aitaren etxera joan ziren niregatik galdezka. Azkeneko bira nirekin batera egin nahi zutela esan zioten. Nire aitak esan zien, ezkondata nengola

eta nire senarrari eskatu behar ko ziela baimena. Pentsa orduan ze matxismoa zegoen. 22 urterekin, ezkondata eta ume batekin nengoen. Nire senarrak nirekin hitz egin zuen. Nik esan nion asko gustatuko litzaidakeela taldearekin bira hori egitea. Senarrak onartu egin zuen, baina baldintza bat jarri zien: gauero etxera ekarri behar ninduten lotara. Horrela zapaldu nituen azkeneko estenatokiak

Ezkondatuakoan utzi zenuen beraz?

Bai. Bazen Donostian akordeoia egiten zituen tailer bat. Askotan egoten nintzen han, eta hango lagun batek esaten zidan: *Ai Maria Luisa. Mutil-laguna aurkituko duzu eta akordeoia galdu. Zergatik ba?* galdetzen nion nik. *Ba, astelehenean, asteartean, asteazkenean... berarekin atera behar ko duzulako.* Nik ezetz esaten nion. Baina asmatu egin zuen azkenean! Ibilbide motza izan zen nirea. 13 urterekin hasi eta 22rekin amaitu. Estenatokiak utzi ondoren ere, akordeoia aldean izan dut beti. Festa pribatu askotan jo dut.

Oso ezaguna zinen garai haietan. Ospe hori, txapelketa ezberdinetan egindako erakustaldiekin irabaziko zenuen ba?

Bai noski. Fama irabazteko horrela irabazi behar zen, ez baitzegoen telebistarik. Gipuzkoako Txapelketa 14 urterekin irabazi nuen. Horrela, Espainiako Txapelketan Gipuzkoako probintzia ordezkatu nuen. Bartzelonan ospatu zen txapelketa. Emakumezkoen alorrean irabazlea izan nintzen. Ni nintzen gazteena, gainontzeko partaide guztiak ni baino askoz ere zaharragoak ziren, eta nagusiki mutilak. Oso arraroa zen emakume bat akordeoia jotzen ikustea.

Zer zuen zure akordeoia jotzeko moduak horrenbeste pertsona lileratzeko?

Behin kazetari batek esan zuen: Lau akordeonista izan omen ginen akordeoiari duintasuna eman genionak. Orduan, Norvegiatik ekartzen zituzten akordeoiak. Haiekin ezin zen gauza handirik egin: melodia gutxi batzuk jotzen ziren. Hernaniko gizon bat eta ni izan ginen lehenak akordeoiarekin pianoko piezak jotzen. Jendeak orduan esan zuen: *Hau beste gauza bat da!* Haizeberri egin genuen instrumentua. Horregatik deitzen gintuzten jaialdian parte hartzeko, pieza berriak jotzen genituelako.

Akordeoiak hitz egiten ari gara, baina zuk piano ikasketak egin zenituen...

Zortzi urteko karrera egin nuen. Lana, ikasi eta praktikatuta. Dena egin nuen aldi berean. Denborarik gabe ibiltzen nintzen. Gainera, ikasketak egiten nituen bitartean, akordeoia ere jotzen nuen. Hori bai, nire kasa. Oso antzekoak dira pianoa eta akordeoia, bai eskubi aldea behintzat. Gustatu egiten zitzaidan. Gainera akordeoia edozein lekutara eramane zeneke.

Pianoa jotzen al duzu oraindik?

Ez. Piano ikasketak egitea

sakrifizioa handia izan zen niretzat. Oso nekaturik bukatu nuen. Burdindegiko bata zuriarekin joaten nintzen eskoletara. Ignazio Mokoroa nuen maisu. *Nola egin dezakezu lan burdindegian. Begira ze eskuak!* esan zidan behin, eskuan ebaki bat egin nuenean. Baina ez nuen beste erremediorik. Lana egin beharra neukan.

Hala ere, zenbaitetan jo izan dut pianoa. Beti senarrak edo lagunek eskatuta. Orain, lotsatu egingo nintzateke.

Diskoa eskuetan duzu. Zure ondorengoek akordeoia nola jotzen zenuen entzun ahal izango dute, baina baita beste edonork ere, ezta?

Hori da. Ez nuen pentsatzen diskoa salgai jartzea. Senideen eta lagunen artean banatzeko 50 kopia ateratzeko asmoa nuen. Baina Elkar-eko lagunek esan zidaten ateratzeko kopia gehiago, prezio aldetik ez zegoela alderik. Azkenean 500 ale atera ditugu, eta eskuragai daude Elkar-eko dendetan.

Eta zer esan dizu jendeak diskoren berri izan dutenean?

Diskoa grabatzeko lanetan tekniko moduan aritu zen gizonak esan zidan. *Non egon zara orain arte, diskorik ez grabatze-*



Nostalgiak gogoratzen ditu gaztea zela akordeoiarekin ibiltzen zeneko garaiak.

ko? Nik honela erantzun nion: Hiru seme-alaba hazi ditut, bizitza guztian lanean aritu naiz. Jubilatuta nintzenean pintatzen hasi nintzen, asko gustatzen baitzait. Eta azkenean, disko hau grabatu dut oinordekoei zerbait uzteagatik.

Lagun askori oparitu diot diskoa. Asko emozionatu egin dira entzutean, eta oso erantzun atseginak jaso ditut. Lagunek diskoaz ematen didaten iritzi

bakoitza koaderno batean apuntatzen dut. Denak eduki nahi ditut jasota.

Diskoaren aitzakian ikusiko al dugu Maria Luisa Irastorza oholta gainean?

Ez dakit. Oso urduri jarriko nintzateke. Agian bai, baina lagun arteko kontzertu bat izan beharko luke. Ate hori ez dago guztiz itxita. Horretan utziko dugu. ■

es el momento
diesel
es el momento
citroën

PLAN VIVÉREN
Aurreratu
2.352,80€¹
Interesetan 10.000€
Finantziatuta PLAN
VIVÉRENekin

CITROËN C4
HDI GAMA C4
13.400€*TIK | 11.900€**TIK
+ ARRISKU OSORAKO ASEGURUA DOAINIK²⁾

CITROËN C3
HDI GAMA C3
10.400€*TIK | 9.100€**TIK
+ ARRISKU OSORAKO ASEGURUA DOAINIK²⁾



CITROËN

CRÉATIVE
TECHNOLOGIE

Konsumo mistoa (L/100 Km) / Jaulkipena CO₂ (g/km): C3: 4,3-6,1/113-145 C4: 4,4-6,9/117-175
CITROËN preferie TOTAL

Gomendatutako salneurria (BEZA, matrikulazio zerga, garraioa eta eskeintza barne). Hilabete bukaera bitarteko baliagarriak, stock-ean dauden autoentzat. Penintsulan eta Balearretan bezero partikularrei operazioan parte hartzen duten ohiko tokietan. C3 HDI 70 Furio. C4 HDI 90 LX Coupé. **Gasolina: C3 1,1i Furio. C4 1,4 16v 90 cv LX Coupé. (1) Arrisku osorako aseguruia frankiziarekin (360€koa 25 urte gorakoentzako eta 600€koa 25 urte beharagoentzako) lehenengo urtean barne Zurich konpainiarekin eta PSA Finance Sucursal Espainiak eskainita eta bitartekaritza, adin mugarik gabeko partikularrei. C4, C4 Sedan, Xsara Picasso o C3 finantziatzen duten bezeroei. 5000€ko kapital minimoa (PLAN VIVÉ-tik kanpo). (2) Finantziario eskaintza Banque PSA Finance bezero partikularrei, hilabete bukaera bitarteko baliagarriak, CO₂ jaulkipena 140 g/km gainditzen ez duten autoentzako.

IROVI S.A. KONTZESIONARIO OFIZIALA CITROËN INDUSTRIAL GUNEA Z/G. TEL.: 943 65 18 42. ANOETA/TOLOSA

ANOETA >>> 60KO HAMARKADAREN AZKEN URTEAK AINTZAT HARTUTA, IKASTOLAREN ALDEKO MUGIMENDUA

Ikastolaren sorrera: herri mugimendua



Ikastolaren sorreran parte hartu zuten gurasoak.

XX. mendeko 70. hamarkada ate joka zela, Anoetako gurasoek, gazte euskaltzale eta beste zenbaiten laguntzaz IKASTOLA sortu zuten. Ekimen hartan zuzenean parte hartu zuten hainbat guraso eta gazte elkartu dituzte garai hartako oroitzapenak biltzeko asmotan. Beren ekarpenak oinarritzat hartuta, Anoetan ekainaren 5ean antolatu duten emanaldi berezian Ikastolaren sorrera eta horri lotutako herri mugimendua bertso antzerkiaren bidez irudikatuko dute.

Konxiki Luluaga

Ikastolaren sorrera aitzakitzat hartuta, bertan parte hartu zuten guraso, gazteak nahiz beste herritarrak elkartu ditugu beren memoria dantzan jar dezaten eskatuz. Batetik, hasierako gurasoak eta lagundu zuten herritarrak: Maitere Odriozola, Jose Mari Oiarzabal, Bixente Garmendia, Guillermo Olano, Patxi Aierbe eta Jose Ramon Zubiri. Bestetik, garai

hartako gazteak: Iñaki Urkola, Begoña Urkizu, Eleni Arregi, Arantxa Mugika eta Joxi Uzku-dun. Zein oroitzapen gordetzen duten, nola bizi izan zuten galdetu diegu. Orain 40 urte inguruko kontuak gogora ekarri. Nostalgia eta egindakoaz harro sentitzen denaren poza antzematen zen beren hitzetan. Luze hitz egin digute. Jakin-minez entzun ditugu. Ondoko lerroetan agertzen da solasaldi horietan bildutakoa.

1969an, hain zuzen ere, sortu zen ANOETAKO IKASTOLA. Baina, gehienetan bezala, asmoak egia bihurtzeko, bidean egin beharreko ahalegina ez da hutsaren hurrena izaten. Anoetako guraso talde batek beren seme-alabentzako beste eskola eredu bat nahi-eta, egin zuen lana izan ez zen bezala.

Espainiako gerra ondoko Francoren diktadurak irauten zuen artean. Inguru euskaduna zen Anoeta. Bertako umeak, baserri giroan hazitakoak gehienak, eskolara joan eta gazteleraz tutik jakin gabe, hizkuntza arrotz horretan egin behar ikasketa guztiak. Ezintasun horri eta baita beste batzuei lotuta ere etortzen ziren zigor fisiokoak. Eskolako sarreran bandera espainola makilan gora igo ahal "Cara al Sol" inoiz ikasi gabeko abestia kantatu beharra. Eskola giro horretan hezi ziren 70. hamarkadan guraso bihurtu zirenak. Ez zuten beren seme-alabentzat beraiek jasandako sufri-mendurik nahi.

EUSKARA, ZOKOTIK PLAZARA

Bestalde, euskara hil zorian zegoen. Goi eta Herri Mailako

A ETA SORRERA BERTSO ANTZERKIAREN BITARTEZ IRUDIKATUKO DUTE

Mugimenduaren lorpena

Administrazioan bezala, irakas-kuntzan eta kalean ere euskara erabat baztertua zegoen, zokoratuta. Herri txikietan euskaren erabilpena mantentzen bazen ere, Tolosako kaleetan euskaraz hitz egiten zutenak konta ahala izaten ziren. Gure hizkuntza etxean bakarrik erabiltzen zen hizkuntza izatera kondanatua izan zen.

Anoeta, Tolosarekin alderatua, herri txikia zen orduan ere, eta txikitasunak bere alde onak izaten dituenetz, gaztelarak nekezago hartu zuen lekua. Izan ere, anoetarrek erdara oso motel ibili izan zuten.

Herria gero eta erdaldunago bilakatzen ari zen, euskarari mantendu behar zela-eta, galtzeko zorian baitzegoen, zeozer egitearen premia ikusi eta eta bero-bero ekin zioten lanari.

DOTRINETA, LEHENENGO EGOITZA

Testuinguru horretan kokatu behar dugu Ikastolaren sorrera. Batetik, euskara zokotik, etxeko lau paretetatik, atera nahia; bestetik, haurrak hezitzeko beste bide bati heltzeko beharra. Horiek izan ziren Anoetako guraso batzuek, "Guraso Elkar-tea" osatuta, beren seme-ala-bak erdi klandestinitateko Ikastolan hasteko arrazoi nagusiak. Pausoa ematea zaila izan bazen ere, izan zuten nork lagundu. Izan ere, orduko Eskola Nazional-etako maistra zen Tere Mozok Hezkuntzako Ikuskaritzako hitzeko oniritzia jaso zuen. Garaiko Don Ramon Murua Anoetako parrokoak, parrokiaren lokala zen "dotrineta" eskaini zion Ikastolari eta "Escuela Parroquial" izenpean ekin zion bere ibilbideari.

23 haur elkartu ziren lehen gela hartan, 3 eta 6 urte bitartekoak, Eukene Sarasola andereñoarekin.

Berehala hasi ziren arazo ekonomikoak. Guraso bakoitzak jartzen zituen 500 pezetako kuotak ez zuen ematen Ikastolako gastuak, andereñoaren soldata eta bere Moestoneko bazkariak ordaintzeko. Horrela sortu zen Ikastolako lehenengo Junta, Jose Mari Oiarzabal lehenkariarekin. Etxez etxe joan behar izan zuten, eskean, anoetarren borondatearen baitan dirulaguntzak biltzen. Premiak gero eta handiagoak zirela-eta beste diru-iturri batzuk bilatzen hasi ziren: kotxe- eta arkume-zozketak, abesti- eta bertso-jaialdiak, pilota partidak eta baita herriko festetan antolatzen ziren tabernak ere.

Ordurako ere herriko gazteak elkartzen hasiak ziren. Gai politikoez arduratuta, euskaren egoera larriaz jabetuta, mundua aldatu nahi. Lehen eta orain, gazteak herriko motorra. Apai-zari giltza eskatu eta dotrinetan elkartzen ziren, horixe izan zuten bilgunea. Beren aurrekoek festak antolatzeari utzi eta hainbat

urtetan udala lan horretan aritu ondoren, "Herri Gazte" taldeak 1973an bere gain hartu zuten ardura hori.

Izugarrizko arrakasta izaten zuen garai hartan Anoetako festak. Izan ere, 1970az geroztik Korputsetan ospatzen ziren jaientan jende asko hurbiltzen zen festa girora. Korputsa egun handia izaten baitzen.

Elizeko ertz batean, toldoz estalita, bata; lokal handi batean, bestea, tabernak bezala atondu eta lanean ematen zituzten jai egunak. Txanpan botelak, benjaminak, konbinatuak, ... eta horiez gain, pintxoak, bokadilloak, oilasko erreak, ... erruz saltzen zituzten. Baina, ezin dena lana izan. Festetako ostiralean, gazteen baserriz baserriko oilasko-biltzea zela-eta, Guraso Elkarteko senar-emazteek txanda egiten zien tabernetan.

Helburu bakarra zuen tabernan ateratako diruak, Ikastola aurrera atera zedin laguntzea, hain zuzen ere. Gazteek argi zuten hori zela lehentasuna. Horrela eman zioten hasiera elkarlanari, gurasoak eta gazteak bat eginda Ikastolaren alde. Funtzionamendu mailan ere,

gazteek bere ordezkaritza zuten Ikastolako juntetan.

Ondotik urriko asteburuetan antolatutako ekitaldiak ere etorriko ziren. Larunbatetan musika eta igandetan pilota partidak. Plaza itxi, posteak jarri eta toldoz dena estali. Sarrera kobratuz eta elizan bezalaxe poltsa pasaz biltzen zen dirua. Euskal musika taldeak ekartzen zituzten eta beren kanten letrak Gobernu Zibilera eraman behar izaten zituzten, beren oniritzia eman zezaten. Paisanoz jantzitako guardia zibilak hurbiltzen ziren jaialdietara, baina sekulan ez zen mozketarik izan.

Urteetan egindako elkarlanak bere fruitua eman zuen. 1974an zenbait gurasoren artean Ikastolak lokal propioa izan zezan bajera bat erosi zuten. 1979an, ekimenez ekimen lortutako diruarekin, erosketa egin zuen guraso bakoitzari aurretik jarritako dirua itzuli zitzaion. Herriak egindakoa, herriarentzat. Anoetako Ikastolak bere izenean herri hitza hartu zuen, ANOETAKO HERRI IKASTOLA da harrezkeroztik. ■



70. hamarkadan herri mugimenduan jardun zuten gazteak.

TXOLARRE IRRATIA >>> 1000 LAGUN BAINO GEHIAGOK HARTU DUTE PARTE KABITIK PLAZARA EKIMENEAN

Txolarrek harrera bikaina jaso

Otsailetik maiatzera antolatutako ekintza sortarekin, Txolarre Irratia eskualdeko plazan kokatuta da. Hori zen Kabitik Plazara ekimenaren helburua: estudiotik atera eta Tolosaldeko herritarrei euskarazko irratiak hurbiltzea. Xedea beteta, eta ekimenak izan duen harrera ona ikusita, balorazio ezinhobea egin dute Txolarre Irratiko lagunek. 2010. urtean hamar urte beteko ditu eskualdeko irratiak. Urtemuga horri begira indarrak batzeko ere balio izan du ekimenak.

Erredakzioa

Urtotan Txolarre Irratiak gure etxeetako sukaldetan izan duen presentzia, kalera, herriko plazara atera nahi dugu. Herritarrekin batera aldarrikatu nahi dugu, Tolosaldeak baduela euskara hutsezko kalitatezko irratiak. Horretarako antolatu dugu Kabitik Plazara ekimena. Era honetan aurkeztu

zuten otsaila hasieran, 1000tik gora lagun bildu dituen ekimena. Maiatzaren 8an, Ibarrako garagardo azokan egindako kantu saioarekin amaitu zen ekintza sorta. Orain balorazioak egiteko garaia da. “Balorazio positiboa egiten dugu. Aurreikusitako helburu guztiak bete ditu ekimenak. Txolarre Irratia eskualdeko plazara atera da, eta jendeak harrera bikaina egin dio”, azaldu du Jon Miranda Txolarre Irratiko langileak.

BERTSOZ, KANTUZ ETA GURE KIROLAK EGINEZ

Otsailaren 14an egin zuen txolarreak lehenengo kikua plazan. Zizurkilen estreinatu zen Bertsoak 09 + emanaldiarekin eman zitzaion hasiera ekintza sortari. Zizurkilgo zentrorra afaritarra gerturatu ziren 70 lagunek bertso emanaldi berezi eta bakarraz gozatu ahal izan zuten. Iñaki Gurrutxaga, Uxue Alberdi, Aitzol Barandiaran, Amaia Agirre eta Unai Muñoa bertsolariak izan ziren protagonista, Egoitz Aizpuru gai jar-

tzailarekin batera. Bertsoak, bapatekoak zein jarritakoak, gitarra lagun zutela kantatu zituten. “Nekez ahaztuko du jendeak emanaldi hura, benetan ederra izan baitzen. Lehenengo ekintza punta-puntakoa izan zen, eta pentsatu genuen, zaila izango zela maila horri eustea”.

Usteak erdi ustel. Martxoaren 14an, bertso bazkaria egin zen Alegin, Zazpi Astoren Gai- nean bertso eskolarekin elkarlanean. “Alegiko Kultur Etxean egindako saioan, Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldiak eskainitako saioa bikaina izan zen”.

Alegiko bertso bazkariaren biharamunean izan zen ahalegin handiena eskatu zuen ekintza. “Helduak eta gaztea, eten ez den katea deitu genion Asteasu-ko frontoian antolatutako herri kirol jaialdiari. Eta egia esan, herri kirolen katea ez dela eten, indartsu daudela frogatu genuen, 300 lagun bildu baitziren frontoian”. Urdax Magunazelaia Abadiño-ko 11 urteko harri jasotzailea eta Joxe Mari Mendizabal eta Anjel Arrospide eskualdeko aizkolarriak izan ziren protagonista: Lehenak, 105 kiloko harria jaso zuen, eta bi aizkolariek bueltan 3 metro zituen enbortzarra eba-ki zuten. Bien bitartean, Tubi eta Lapazaran anaiek iparraldeko jokoan erakustaldia egin zuten.

Kabitik Plazara-ko azken bertso emanaldia Tolosaldeko Iurre elkar- tean egin zen apirilaren 4an. Eskualdeko hiru bertsolari aritu ziren bertsoan: Jexux Mari

Irazu, Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi. Gai jartzen Igotz Alkorta izan zuten. “Irratiaren testuinguruan jarri zituen gaiak eta saio umoretsua suertatu zen. Hiru bertsolariak eskualdekoak izanik, Tolosaldea ere hizpide izan zuten librea aritu ziren tartean”. Ia 80 pertsona inguratu ziren hiru bertsolariak entzuteran.

Bertso emanaldiak amaituta katurako ordua iritsi zen apirilaren 25ean. Berastegiko Urepele elkartean kantu bazkaria antolatu zuen eskualdeko irratiak herriko abeslariarekin. “Bage- nekien Berastegin ahots finak zeudela. Horrela, Izaro Saizar, Iñaki Barriola, Maialen Etxeberria eta Garazi Esnaolarengana jo genuen Kantuzale elkartea- ren bidez. Kantu emanaldi ederra eskaini zuten. Ez zuten eurek bakarrik abestu: Elkartera bertaratu zen herritar andana ere kantuan jarri zuten”. Bigarren kantu saioa, eta ekimeneko azke- neko ekintza, maiatzaren 8an ospatu zen Ibarrako garagardo azokan. Afaltzen ari ziren 600 lagun aurrean abestu zuten Tklax eta Lain taldeek, Ohiana Sarasolak, Garazi Egigurenek eta Garazi Esnaolak. “Indartsu hasi genuen Kabitik Plazara Zizur- kilen eta indartsu amaitu dugu Ibarran”.

Aipatutako ekitaldien kalitate- a azpimarratu nahi izan du Jon Mirandak. “Primerako ikuski- zunak izan dira eta jendeak erruz gozatu du. Eta dena eskualde- ko lagunekin antolatu dugu. Hau da, eskualdeko bertsolari, kirolari eta abeslariarekin”. Kabitik Plazara ekimenak erakutsi du, punta-puntako ekitaldiak eskain- tzeke ez dagoela urrun joan beharrik.



du eskualdeko plazan

LEHENGO HARREMANAK SENDOTUZ ETA BERRIAK SORTUZ

Txolarre Irratiak esker oneko hitzak besterik ez ditu bertsolari, abeslari eta kirolarientzat. “Lehenengo unetik prest agertu ziren irratiairen alde euren hondar alea jartzeko. Azkenean ordea, hondar ale-txo bat baino zerbait gehiago jarri dute denek, bere emanaldia prestatzeko lan handia egin baitute”. Eskerrak eman nahi dizkie baita ere, antolaketa lanetan lagun izan dituzten Euskal Kantuzaleen Elkarteari, Bertsozale Elkarteari, Alegiako Zazpi Astoren Gainean bertso eskolari, Zizurkilgo Zentroari, Berastegiko Urepele Elkarteari, Tolosako Iurre Elkarteari eta Ibarako Garaardo Azokako antolatzaileei. “Euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango zen hau guztia aurrera eramatea. Primeran erantzun dute denek”. Azkenik, Berastegiko eta Asteasuko Udalei ere bere esker ona

adierazi nahi die Txolarrek eman duten laguntza ekonomikoarengatik.

“Hasieratik argi genuen, Kabitik Plazara, Txolarre Irratiaren lagunekin egin behar genuela, eta irratian presentzia duten bertsolaritzari, kantuari eta herri kirolari protagonismoa emanez”. Halaxe egin dute eta ez dira damutzen. Jon Mirandaren hitzetan, “aipatutako harremanak sendotzeko balio izan du ekimenak. Ez hori bakarrik: Kabitik Plazarako bidean, Txolarre Irratiak lagun gehiago egin ditu, aurrerantzean ere aldamenean izango dituenak”.

Orain, 2010. urtean ospatu beharreko hamargarren urteurrenari begira daude Txolarre Irratian. “Kabitik Plazara pauso garrantzitsua izan da, baina lehenengo pausoa. Eskualdeko irratia bide gehiago egiteko asmoa du”. Bien bitartean, Kabitik Plazarak emandako guztia www.txolarre.org atarian aurkituko duzue. ■



3 bertso afari, 2 kantu saio eta herri kirol jaialdi bat antolatu ditu Txolarre irratia.

jarri
publizitatea
hemen

telf. 943 655 004
publizitatea@galtzaundi.com

 **ONAK**
MARMOLAK, S.A.

Mota guztietako lanak:
Granitoan marmolean eta
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Saila, 1 • URDUETA
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613



**Eskerrik asko
kabitik plazarako
bidea gurekin
egiteagatik**

Txolarre Irratia
www.txolarre.org
FM 107.5-101.2

Gustuko lekuan aldapariri

ESKUALDEKO MENDIZALE ETA LASTERKARI UGARIK HARTUKO DU PARTE DENBORALDIA

Leire Zubeldia

Maiatzean ardiak larrera eta mendilasterkariak Aizkorri magalera. Gustuko lekuan ez da aldaparik izaten eta mendilasterkariak burubelari ari dira denboraldiko gailurra prestatzen. Hilaren 24an eskualdeko kirolari asko abiatuko dira Aizkorri gora. Horieta hitz egin du Galtzaundik: Imanol Zubillaga, Jose Manuel Villegas, Luis Lasa, Xabier Karrera eta Joseba Usabiagarekin.

ERREPIKATZEKO MODUKO ESPERIENTZIA

Martxoan hasi zen mendilasterketen denboraldia. Orduetik hona, astebururo jokatu da probaren bat edo beste. “Horregatik, zorte handia behar da Zegama-Aizkorri lesiorik gabe iristeko”, dio Imanol Zubillagak. Bost elkarrizketatuak zortedunak izan dira alde horretatik.

Urte gutxi daramate mendian gora korrika, baina denek ere esperientzia errepikatu nahi dute. Imanol Zubillagak esaterako, mendia deskubritu zuenetik ez du errepideko lasterketarik egin. “Iaz, Aizkorriko maratoian parte hartzeko hilabete bateko tartearekin deitu zidaten. Bost lasterketa eta hiru entrenamendu gogor egin nituen prestatzeko. Oso ondo joan zitzaidan. Aurten ere antzeko zerbait eginen ari naiz. Gustura nago, zeren lasterketa batetik bestera hobekuntza bat somatzen dut. Sentsazio onak ditut

Mendia probatzen duena engantxatu egiten da. Hori diote Galtzaundirekin hitz egin duten eskualdeko mendilasterkariak. Agian hori izan daiteke azken urteetan mendilasterketekiko sortu den sukarraren arrazoia. Parte hartzaile kopuruak gora egin du, eta ondorioz, mendilasterketa gehiago antolatzen dira. Guzti horien artean ordea, bada bat besteak baino garrantzitsuagoa: Zegama-Aizkorri mendilasterketa maratoia. Maiatzaren 24an jokatu den proba hau prestatzen harrapatu ditugu eskualdeko zenbait mendilasterkari.



Luis Lasa, Imanol Zubillaga, Joseba Usabiaga, Xabier Karrera eta Juan Manuel Villegas.

mendilasterketa maratoiarri begira”, azaldu du Imanol Zubillagak. Joseba Usabiagak hamar urte daramatza asfalto gainean korrika. Honek ere proba egin zuen, eta gustatu egin zitzaion: “Duela bi urte, Aizkorriko maratoian izena ematea bururatu zitzaidan, eta hara non zozketan dortsala egokitu zitzaidala esanez deitu zidaten antolakuntzatik. Nahiko ondo amaitu nuen proba. Gainera gustatu egin zitzaidan sortu zen giroa.

Eta geroztik, hor nabil”. Luis Lasa ere maratoi erdia prestatzen ari da, baina patxada-tsuago. “Nik lasterketa gutxi egin ditut. Iaz Berako lasterketan parte hartu nuen lagun batek bultzatuta. Aurten ere egin dut beste pare bat lasterketekin batera”.

Xabier Karrera beste baterako utziko du Zegamako proba. Aurtengoa da bere lehenengo denboraldia eta pixkanaka hasi nahi du. “Behobia eginen hasi nin-

zen. Gero, lagun batek animatu ninduen mendilasterketa batean ateratzera. Gustura eginen dut korrika mendian, baina mantso-mantso noa. 21 km-tik beherako probak eginen ditut oraingoz”.

Jose Manuel Villegas ere Aizkorri izango da. Baina bere lagunentzat ez bezala, hau ez da denboraldiko helburua. “Ekainean Integral de Picos de Europa egingo dut, eta abuztuan Aneto-

k ez

ALDIKO PROBARIK GARRANTZITSUENEAN: ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOAIN

koa". Azken hau 166 km-ko proba da, 9 orduko iraupena duena. Iaz, 3. helmugaratu zen, senior mailako lehen sailkatua izan zelarik. Datorren urtean Montblanc-eko lasterketan atera nahi du Villegasek, eta dortsala lortzeko puntuak batzen ari da. "Beste lasterketa mota bat da. Iraupen luzeagoa dutenak eta ondorioz gogorragoak. Baina paisaiari begiratuta politagoak ere bai".



Jendetza batzen da Aizkorriko maldetan.

AIZKORRIKO MALDEN XARMA

"Euskal Herrian egiten diren mendi lasterketen artean, Zegama-Aizkorri da erreferentzia. Denboraldiko helburua izaten da lasterketetan ibiltzen diren herritarrentzat". Lasaren esana baieztatu egin dute gainontzeko guztiek. Aizkorriko maldak erakargarri egiten dituzten hainbat faktore aipatu dituzte segidan. "Munduko kopan puntuagarria den inguru

hauetako mendi maratoi bakarra da, eta lasterkari onenak izaten dira bertan. Basetetik, jendetza izaten da, bai herrian eta bai mendian, lasterkariak animatzen. Oso giro polita sortzen da". Polita bai, baina gogorra ere bai. "Euskal Herriko mendi lasterketarik gogorrena da niretzat", dio Luisek. Imanol ez dago horrekin ados: "Ez da gogorra. Kontua da, jende mordo egoten dela bide bazte-

rrean zu animatzen, eta nahigabe behar dena baino azkarrago igotzen zarela. Aizkorri tontorrean jada lasterketa erdia eginda daukazu, baina hain azkar igotzen da jendea, beherakoan pott egiten duela". Horregatik dio Josebak, benetazko lasterketa Aizkorriko gailurrean hasten dela. "Tontorrera ondo iristen bazara, hortik helmugarako tartean egin dezakezu denbora ona".

Bost mendizaleek nabarmendu dute Zegamako kale-etan sortzen den giroa. "Errepideko lasterketetan ez da horrelako girorik sortzen. Egun guztiko jaia izaten da". Baina Aizkorriko mendi maratona ez da salbuespena. Euskal Herriko mendi lasterketa guztietan sortzen da jai giroa irteera eta helmuga puntuetan. Korrikalarien arteko laguntasuna ere azpimarratu dute. "Mendian min hartzen baduzu, atzekoa gertatu egiten da zu laguntzera, eta behar den denbora guztia ematen du zurekin. Errepidean ez da hori gertatzen", dio Imanolek. "Hori gertatzen da, ez delako kirol elitista bat. Mendian ez zoaz erlojuari begira", jarraitu du Luisek. Ezaugarri guzti hauen arteko nahasketak sortu du nonbait mendi lasterketekiko sukarra. Azken batean, gus-tuko lekuan aldaparik ez. Zor-te on eskualdeko lasterkari guztiei!



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



**errrotatxo
okindegia**

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

MENDIZABAL
abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoaharagia.com
Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)

**Juan Larrazpu
eraikuntzak, s.l.**

- Baserrietako igeltsenitza eta egurrezko estrukturetan adituak.
- Etxeen berrikuntzak:
- Fatxadak - Teilatuak - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966 Jon Arruti (Orio)

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Maiatzaren 22tik ekainaren 5era arteko

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

»» Ekainak 27ra arte: Ruiz de Eguinoren pintura eta eskultura erakusketa.

ALEGIAKO JUBILATUEN TABERNA

»» Hilaren amaierara arte: Juani Alkorta zizurkildarraren margolanak ikusgai.

IKUSKIZUNAK

LEIDOR



»» Maiatzak 23: Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior taldearen "Bihurrikeriak" ikuskizuna 17:00etan.

»» Udaberri dantza taldeko ikasleak eta Udal Musika Eskolako ikasleen banda 12:00etan.

M U S I K A

LEIDOR

»» Maiatzak 29: Wim Mertens kontzertua Mundua Tolosan zikloaren baitan, 20:30ean.

»» Ekainak 6: Dulce Pontes-en emanaldia, Mundua Tolosan zikloaren baitan, 20:30ean.



BONBERENEA

»» Maiatzak 22: Norman eta Brankan 22:30ean.

»» Maiatzak 23: Biok eta Pog mo thon taldeak 22:30ean.

»» Maiatzak 25: The intelligence taldearen kontzertua 22:30ean.



»» Maiatzak 29: Rosalia roio madrildarraren zuzenekoak 22:30ean.

»» Maiatzak 30: Napoka iria eta Gora japon 22:30ean.



ZERKAUSIA

»» Maiatzak 30 eta 31: Bisigua Orioko estilora festan, bisigu menu ederra prezio merkean.



AIZ-ORRATZ ELKARTEAREN 75. URTEURRENA

»» Maiatzak 31: TAKen eta Orioko arraun klubaren arteko batel desafioa kategoria guztietan. Ondoren, Emendek eta Veletako beterranoen desafioa. Gero, omenaldia Altzerri eta Ramon Amonarrizi. Azkenik, bazkaria Zerkausian.

ASTE KULTURALA LIZARTZAN



»» Maiatzak 22: Kantu poteoa 22:00etan. Garazi Esnaola eta Garazi Egigurenek eskainita, musika emanaldia 22:30ean.

Martin Eceizabarrena

Instalazio erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

SHANTI

kirolak

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

hitzorduak

►► **Maiatzak 23:** Ume jolasak 16:30ean. Baserritik baserrira antzerkia Baserriko Emakumeen Elkarteak eskainita, 22.30ean.

►► **Maiatzak 24:** Helduen eguna: 11:00; hamaiketako elkarteak. 12:00; pilota saioa. 14:00; helduen bazkaria, doain. 18.00; Herri kirolak, Lizartza eta Gazteluren artean.

Oharra: Ekintza guztiak Gunean egingo dira.

Antolatzailea: Lizartzako Udal Alternatiboa.



A U S A G A Z T E L U R A M E N D I M A R T X A

►► **Maiatzak 31:** 10:00; Ausa-Gaztelura abiatu. 11:30; Tontorrean bildu. 11:30-12:00; Gazteluan bandera zutitu. Txistuz, Nafarroako Gorteen ereserkia jo. Komunikatua irakurri eta bertsoak abestu. 13:30; Larraitzen bildu eta kalerjira. 14:30; Lagunarteko bazkaria.

Tolosaldean IKASTN

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Ikastaroak

Ikastaroa	Iraupena (orduak)	Hasiera Data
Microsoft Powerpoint	30	2009-05-25
Microsoft Access	30	2009-05-28
Bilera eraginkorrak	6	2009-06-01
Internet + e-administrazioa	20	2009-06-01
Aromaterapia	4	2009-06-01
Emaweb – Emakumeentzako internet ikastaroa	20	2009-06-08

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota bestelako ikastaroen informazioa interesatu izanez gero, jar zaitez harremanetan:

Webgunea: www.ikastn.com

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17
20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678

Posta-e: info@ikastn.com

<http://www.ikastn.com>

Guardiako farmaziak

MAIATZA

Ostirala, 22

Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

Larunbata, 23

Etxebeste Jesus M^o (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Igandea, 24

Bronte Cecilia, (korreo 20) Tolosa

Astelehena, 25

Morant Rosalia. Zabalameta, 1, Tolosa

Astearte, 26

Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa

Asteazkena, 27

Iturriz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra

Osteguna, 28

Tolosa, M^o Isabel (Nagusia, 7) Tolosa

Ostirala, 29

Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa

Larunbata, 30

Olarreaga M (Martin Jose Iraola) Tolosa

Igandea, 31

Etxebeste Jesus M^o (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Astelehena, 1

Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

Astearte, 2

Ugarte, M^oTeresa (Euskal Herria, 46) Ibarra

Asteazkena, 3

Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa

Osteguna, 4

Morant Rosalia. Zabalameta, 1, Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketak-Albaitzuri-Albiztur

Osasun zentroa. 943 653 212

Alto

Medikua 943 654 737

Anoeta-Alkiza-Hernalde

Medikua 943 652 339

Baliarrain

Medikua 943 889 003 (asteazk.)

Berastegi-Elduain

Medikua 943 683 361

Bidegoian

Medikua 943 681 134

Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu

Osasun etxea 943 672 411

Ikaztegieta

Medikua 943 653 329

Irura

Osasun zentroa. 943 690 720

Tolosa

Anbulatorioa, larrialdiak 943 650 931

San Esteban, hitzordua 943 006 800

Gernikako Arbola, hitzordua 943 006 900

Amarozko dispensarioa 943 672 637

Asunzion klinika 943 675 799

(larrialdiak) 943 675 390

San Kosme San Damian

geriatrikoa 943 672 932

Udaltzaingoa 943 675 858

Ur eta Argia (Tolargi). 943 650 016

Ur zerbitzuak (aberiak) 639 352 156

lurreamendi egoitza 943 670 325

Larrialdiak, Suhiltzaileak 112

DYA 943 672 536

Gurutze Gorria 943 674 888

. 943 651 425

Ertzantza 943 673 022

Tolosa Gasa 943 675 320

Lizartza


Medikua 943 682 077

Orendain

Medikua 943 655 595

Orexa

Medikua 943 682 228



**Vicente
Errotuloak**

Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ **Tel.** 943 690294
■ **Irura** ■ **Faxa.** 943 694291
rotulosvicente@jet.es

T X O K O L A T E G I A



Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

K A F E T E G I A

Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izaguirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzeko. **671 44 66 15**

ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**

SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equip 18.000 euro. **629 52 51 50.**
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669.**
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678923512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renaul Kangoo (60.000 km) salgai** 617863669
- **Espace bat** saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- **kangoo bat salgai** (70.000 km) **Montesa motoa** salgai. 617 863 669
- **Pottoka kalifikatuak salgai** (kumeak egitekoak) **Txakurkumeak** salgai (pintxer arrazakoak). 645 703 634
- **Haur jaio berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai** (aulkiak, hamaika, seaska,...). **653 733 675**

HOROSKOPOA

MAIATZAREN 22TIK EKAINAREN 5ERA BITARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Zerbaitek kezkatzen zaituenean ezin duzu burutik kendu. Hori kaltea da zuretzat. Psikikoki oso nekatur zaude. Yoga eta tankerako ariketak mesedegarriak dira zuretzat.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Gogogabetuta ibiliko zara. Garrantzitsua da zeure buruari gogor egin eta etxetik irtetea. Hasi dira inguruko herrietako festak. Bi parranda egin ostean biziberritu egingo zara.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Harro egotetik harrotuta egotera jauzi handia dago. Utzi loreak besteentzako, inguruko artean harrotutako ume baten itxura eman nahi ez baduzu.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Maitzak gereziak gorritu ditu eta zuen maitasuna hauspotu. Aspaldi honetako unerik errromantikoak pasako dituzue. Pasioz beteko zarete.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Zure bizkarreko minak badu arrazoi bat: gaizki esertzen zara. Zure kasa ezer hartzen hasi aurretik, joan medikutara. Bestalde, paper kontuek burukomina emango dizute.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Pertsona bat erabat maiteminduta daukazu. Zure inguru hurbilekoa da. Erraza egingo zaizu nor den jakietan. Adi ibili, eta bere bigiradak salatuko du. Hor-tik aurrera zeuk ikusi zer egin.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Helburu handiak jartzea baino, hobe txikiak jarri eta pausoz-pauso aurreratzen joatea. Eraginkorragoa da. Gainera ez zaizu beste frustrazioarik komeni



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Ihes egitea ez da irtenbidea, itzultzean arazoak arazo izaten jarraituko du. Bestalde, ez dira garai onak burtsan inbertitzeko. Hobe koltxoi azpian gordeztea.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Hobe hiru asteko infernua eta hiru hilabete zera, eta ez alderantziz. Utzi aitzakiak eta ikasi. Ez egin txuletarik, ez zara oso abila eta harrapatu egingo zaituzte.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Lanean proposamen bat egingo dizute. Ondo aztertu erabakia hartu baino lehen. Bestalde, begi aurrean ikusi ezin duzun pertsona hori desagertu egingo da zure bizitzatik.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Jeloskor dago. Arazo bilakatu baino lehen frogatu iezaiozu ez duela horretarako arrazoirik. Gauzak galtzeko joera izango duzu hurrengo egunetan.



PISCIS

Otsailak 21 – Martxoak 20

Itxi ahoa eta entzun. Besteek ere arazoak izaten dituzte. Maitasun kontuetan fin ibiliko zara. Dena zure alde duzu. Piezak ondo mugituz gero, nahi duzun hori lortuko duzu.





Goierrri
Lanbide eskola,
DOST ARRAZOI
BETE-BETEAN
ASMATZEKO!

informa
zait ez!!

1. Aukera zabalena
2. Etorkizuneko
3. Enprekin elkarlanean
4. Zuretzat egina
5. Ikasteko eredu aurreratua

heziketa zikloak egiteko biderik onena



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA

Goi eta erdi mailako heziketa zikloak

www.inmakuladatososa.com

La Inmakulada
Ikastetxea

AURREMATRIKULAK: ekainak 1-12

GOI MAILA:


- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

ERDI MAILA:

- Erizaintza Laguntzailea
- Farmazi Teknikaria



UNIÓN EUROPEA
Fondo Social Europeo



JOXE MARI IPARRAGIRRE

BIGARREN HEZKUNTZAKO
INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

AURREMATRIKULA:
Ekainaren 1tik 12ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
Ekainaren 29tik uztailaren 3ra (biak barne)

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.

Sta. Barbara bidea, z/g - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943721403 / 943721413
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunct.es